







Xabier Kerexeta

## Behobia-Donostia

geure baitatik atera beharrik. Hona hemen arestian egindako aldaketa: oraintsu arte "Bidasoako" zuzen genioena, oker dago, "Bidasoko" behar du eta. Horra hor, lekuko, Bidasoaren ertzean (kasu honetan ez omen du "Bidasoren" behar), Santiagoko Irun aldeko aduana zaharrean zabalduko interpretazio zentroa. Hala bada, hala bedi. Galdera agian ez litzateke zergatik den hala, Bidaso(a) hitzaren etimologiak etimologia, baizik eta zergatik ez den izan hala arautu orain arte.

Bestetik, forma zaharrari eusten dion arau berrira egokitzen garen bitartean, ziur nago jarraituko dugula entzuten eta irakurtzen, baita testu ofizialetan ere -agian horietan gehiago-, Hondarribiako, Behobiako... eta halakoak, erdaren eraginez seguruenik: erdaraz a-z bukatuta esaten da, eta euskaldunok kalkatzeko joera handia dugu. Behar-bada horrexegatik ere, erdaraz Donosti maiz esaten denez gero, euskaraz Donostiko behin baino gehiagotan topatzen dugu.

Bidasoaldeko mugalariok badugu horretan ere ñabardurarik: oraintsu gaztelaniaz ere Urruña zena gero eta maizago da Urruñe, eta beraz, euskaraz ere bai. Hendaia/Hendaia oraingoz salbu dago. Noiz arte, ordea?

Ez, ez naiz ari joan den igandean egindako lasterketaz. Baina toponimo biek badute lotzen eta era berean bereizten dituen zerbait, 21 kilometroez gain. Zaku berean, hots, bi zakutan, sar genitzake Hondarribia, Hendaia, Bidasoa, Urruña, Azpeitia eta Azkoitia, baita Nafarroa, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Zuberoa ere... Zer da lotzen eta bereizten dituen ezagugarria, bada? Denek dutela "a" letra bukaeran, baina batzuei kentzen ahal zaiela deklinatzean, eta beste batzuei, ez, atxikia dutelako. Edozein euskaldunek ulertzeko modukoa.

Erdaraz bizi garen Euskal Herrian, ordea, dena izaten da konplikatuago. Dena den, auzoaren teilatura harrika hasi aurretik, gogora dezagun Axularrak aspaldi handian ohartarazi ziguna, euskararen protagonismo eskasaz: euskaldunek berek dute kulpia. Izan ere, gure euskara erdalduntzea ala ez... erdaldunei bost axola, eta geure hizkuntzaren erabilera korapilatzeke ez dugu

## Irunero

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Ana Grijalba  
[agrijalba@irunero.com](mailto:agrijalba@irunero.com)

**Kirolak:**

Naiara Hernandez Lekuona

**Euskara zuzentzailea:**

Xabier Kerexeta

**Publizitate kudeatzaileak:**

Amaia Terrazas  
[preta@telefonica.net](mailto:preta@telefonica.net)

Sonia Garcia Olazabal,  
[sgarcia@baseclick.es](mailto:sgarcia@baseclick.es)

**Argitaratzailea:**

Baseclick S.L.

**ISSN:** 1134-0606

**Lege gordailua:**

SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -  
20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

[www.irunero.com](http://www.irunero.com)

## Irun atzo Irun gaur

Urdanibia plaza atzo

IUA: 2267



Urdanibia plaza gaur



Antso Urdanibia Topalda irundar jenerala hainbat urtez Felipe III.aren zerbitzura Espainiako eta Indietako Errege Armadako kide izan zen. Urdanibia jaunak 1644an egindako testamentuan herriko beheko plazan ospitale bat eraikitzeke dirua utzi zuen. Hura zela eta, 1903an Irungo Udalak plazari Urdanibia deitzea erabaki zuen.

Plazak ez du beti izen hori izan. 1896an, Udalak kaleen izenak euskaraz zein gaztelaniaz jarri behar zirela erabaki zuenean, Pilotatokiko plaza izenez agertzen da, bertan pilota partiduak jokatzeko zirelako.

1903an, plaza de la Alameda edo Zumardia

deitzen zenari Plaza de la Feria izena jarri zitzaion. Urte berean, aipatu bezala, gaur egungo izenez bataiatua izan zen.

1859an bazen Urdanibia esaten zitzaion kale bat. Duela urte batzuk arte Udal Euskaltegiaren ondoan dagoen kale kantoian bazegoen huraxe adierazten zuen errotulua.

Goiko argazkia 1969. urtekoa da. Bertan ikus daiteke urtetan lurra estali zuten kolore horixkako harri txintxarrak zeudela.

Plaza laster zaharberrituko dute.

Iturria: *Irungo Kaleen Izenak*. José Monje

Honako erakunde hauek Irunero diruz laguntzen dute:





# “Lege Hipotekarioak kaleratzeen arazoa, arindu beharrean, latzagoa egingo du”

Duela bi urte eta erdi Irungo Stop Kaleratzeak Plataforma eratu zen. Harrez geroztik, hipoteka ordaintzeko zailtasunak dituzten pertsonen informazioa eta laguntza eskaintzen dizkiete.

Independenteak dira, erakundeekin inolako loturarik gabekoak. Astearteroko batzarrean ekintzak adosten dituzte.

## - Zein da plataformaren jardueraren balantzea?

Hasieran kaleratzeak geldiaraztea zen gure zereginik behinena, baina kaleratze prozesuan atzera egitea oso zaila zen unean etortzen zitzaizkigun laguntza bila. Orain, kuota bat ordaindu gabe dutenei lehenbailehen informazterazera etor daitezela gomendatzen diegu.

Estatistikeei dagokienez, inportanteena ez da zenbat pertsonari eman diogun laguntza, kaltetuen kasuen bitartez egoera soziala aldatzea baizik.

Bestalde, aurrera begira, gure helburu nagusietako bat da bankuekin hipotekak sinatu aurretik jendeak zehurtasunez jokatzera.

## - Hiri txikietan jendeak elkar ezagutzen du eta lotsa izan daiteke zuengana ez jotzeko arrazoi bat. Hala al da Irunen?

Irunen kasu gutxi ezagutzen dira, eta horretan eragina izan lezake hiri handietan jendea “ikustezi-nagoa” sentitzeak.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren estatistiken arabera, ia 99 betearazpen hipotekario izan ziren Irunen. Datu horretan jabetza mota guztiak daude barne: ohiko etxebizitzak, gara-jeak, bigarren etxebizitzak, lokalak...

## - Zenbat kasu artatu du Plataformak?

Lehenengo urtean arazoak zituzten 50 pertsona baino gehiago artatu genituen. Ondoren, beste 20 bat lagun etorri zaizkigu laguntza eske. Kasu batzuk oraindik ez dira itxi.

## - Zein da zuengana jotzen duten

## kaltetuen profila?

Argi utzi nahi dugu zorra ordaindu nahi duten pertsonak direla; ez dute utzikieriaz jokatu. Oro har, banku edo aurrezki kuttarekin birfinantzazioa negoziatzeagatik egoera okerragoan dauden pertsonak dira.

## - Lege hipotekario berriak arindu du zerbait egoera?

Gure helburua legeak etxebizitza zorraren truke ematea ahalbidetzea zen, eta kaltetuek alokairu soziala ordaintzeko aukera izan zezatela. Bada, ez bata, ez bestea. Kaleratze moratoria aplikatzen ari da; baina hori ez da konponbidea, baizik eta arazoa atzeratzea eta gero eta latzago bilakatzea. Zer gertatuko da 2015ean moratoria bukatzen denean? Bada, zorra gehi interesak ordaindu beharko dituztela. Arazoa lehertzen denean egoera izugarria izango da.

Abusuzku klausulen inguruko Europar Batasunaren epaiak, berriz, eragin onuragarriak ekarri ditu; baina epaileen erabakien esku daudenez, bada, eragin hori mugatua izan da.

## - IRPH kutzak deituriko interes manipulagarria azaroaren 1etik kendu du Gobernuak. Zer eragin du hipoteka dutenengan Irunen?

2011tik erabaki honen zain ginen, maileguarengatik hilero ordaintzen den zenbatekoa erdira murriztuko lukeelako; beraz, zordunen egoera asko arinduko litzateke. Irunen ia mailegu guztiak Kutxabankekin sinatutakoak dira. Horiek badute indize alternatibo bat, baina urtebeteko

epea dago aplikatzeko. Guk eskatzen duguna da indizea berehala ezartzea.

Entitate askorekin lortu dugu, baina Kutxabank bereziki intransigentea da.

**BULEGOA**  
Kale Nagusia, 1. Irun  
**ORDUTEGIA:**  
Ostegunero 10-12  
Tel: 688 621 311  
(24 orduz)

## Irungo Stop Kaleratzeak Plataforma



Irungo Stop Kaleratzeak Plataformako hiru kide.





- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIOPRESIBOA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

[www.kineesis.net](http://www.kineesis.net)

[www.k-stretch.com](http://www.k-stretch.com)

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640



# Euskararen Nazioarteko Eguna jardueraz lepo dator aurten

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da. Aurtengo jarduera egitaraua inoiz baino mardulago datorkigu, euskaraz bizitzeko nahia plazara ateratzeko xedez. Azaroaren 16tik hasita abenduaren 5era arte hainbat ekitaldi antolatu dira Irunen herri ekimenez batzuk, erakundeenez bestiak.

Ekintza andana dakar datozen asteotako agendak eta... denak euskaraz!

Kultura, gastronomia, jaja, musika, dantza, artea zein jolasak, edozein adinekoentzat, euskaraz ikasten ari direnentzat eta eskaraz bizi direnentzat.


Erakundeetatik antolatutakoen artean Ika Mizka izenekoa da berrinkuntzetako bat, aurten lehenbizikoz Irunen ere burutuko dena. Euskaraz eta euskara bizitzeko moduez hitz egin eta eztabaidatzea du xede (Hurrengo orrialdean zertan datzan irakur daiteke).

**Herri ekimeneko egitarau luzea**  
Herri ekimeneko egitaraua apailatzeaz Irungo hainbat elkarte eta talde arduratu dira. Aurreko urtetan lanean aritu izan dira da talde

zenbait bat baina iaz Euskararen Nazioarteko Eguna kari astebeteko jarduera sorta prestatzeko talde kopurua handitu zen eta "2013rako atxikimendu gehiago lortu ditugu", azaldu du batzordekide batek.

Hemendik aitzina are indar gehiago batu nahi dituzte "gure herriari euskaraz duen presentzia urriarengatik kezkatuta gaudelako, normalakuntza bidean eragin ahal izateko". Bide horretan aurrera egiteko "zenbait egunetan egingo diren ekintzak nahikoa ez direla helarazi nahi diote gizarteari "baina gutxienez kontzientziak astindu nahi genituzke".

Herri batzordeak irundar guztiei dei egin die jardueretan parte hartzera eta euskaraz ongi pasatzera.




La agrícola  
J A T E T X E A

Eguneko menuak, osteburukoak, karta,  
mota guztietako ospakizunak

Alzukupia, 1. IRUN Tel: 943 244 118







Ezkerreko argazkian, iazko Mintzodromoaren argazki bat. Aldamenean, aurtengoa iragartzeko erabili den irudia.

## Irunen antolatu diren ekintzak Euskararen Eguna dela eta

|                              |   |
|------------------------------|---|
| <b>Azaroak 16</b>            | - 21:00etan. Bertso afaria EKTn: Unai Iturriaga eta Miren Amuriza. Sarrerak Sunbilla, Migel eta Hazia tabernetan salgai, baita EKT elkartean ere (astelehenetan 19:30etik aurrera), 18 €  |
| <b>Azaroak 23</b>            | - Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen Txapelketa, LUMA aldizkariak antolatua Ola Sagardotegian.   |
| <b>Azaroak 20-21 / 27-28</b> | - Mutxiko ikastaroa Kemen Dantza Taldearen eskutik, 20:00-21:00 bitarte. Kemeneko lokalean izango da. Izena emateko, zenbaki honetara deitu: 686 872 207  |
| <b>Azaroak 30</b>            | - 8:30ean. Ibilaldi neurtua: EKTtik aterako da. Izen-ematea 2 € izango da, EKTn (astelehenetan 19:30etik aurrera) edo AEKn (bulego ordutegian), baita egunean bertan ere.<br>- 10:00etan. Gosari herrikoia EKTn: ibilaldi neurtuan parte hartu dutenek, dohainik; gainontzekoek, 2 €tan. Izenematea, EKTn (astelehenetan 19:30etik aurrera) edo AEKn (bulego ordutegian), baita egunean bertan ere.<br>- 10:00etan. Haurrentzako marrazki lehiaketa Irungo Atsegiña Elkartean: Izenematea, egunean bertan, 18 urte bitarte.<br>- 11:30ean. AEKrobika San Juan Plazan.<br>- 12:30ean. Triki poteoa tabernaz taberna: EKTtik aterako da.<br>- 14:30ean. Kantu Bazkaria EKTn: Sarrerak 15 €tan salgai Sunbilla, Mari, Migel eta Hazia tabernetan.<br>- 22:00etan. Kontzertua San Juan Plazan.<br>- Gau guztian zehar, Sunbilla taberna euskal musikaz girotua. |
| <b>Abenduak 1</b>            | - Argazki lehiaketa AFI/IAEk antolatua: Izenematea, 5 € EKTn, goizeko 8:30-10:00 bitarte. Bazkaria ere izango da. Egun osoko ekintza. Informazio gehiago AFI/IAEren web orrian.<br>- 11:30ean. Kemen Dantza Taldearen emanaldia San Juan Plazan<br>- 13:00etan. Txorimaloak Soinu Taldearen emanaldia San Juan Plazan<br>- 16:00etan. Haurrentzako jolasak San Juan Plazan<br>- 17:30ean. Ikuskizuna Auntsa Trikitixa Eskola eta Musika Eskola Trikitixaren eskutik   |
| <b>Abenduak 5</b>            | -19:30ean. Irunabarren bertso saioa Kabigorriin   |

### Antolatzaileak

AEK, Irungo Atsegiña Elkarte, Antxeta Irratia, AFI/IAE, EKT, Irunabar, Betti Gotti Euskara Kultur Elkarte, Kemen Dantza taldea, Lakaxita Gaztetxea, Auntsa Trikitixa Eskola, Musika Eskola Trikitixa, Txorimaloak Soinu Taldea.

### Laguntzaileak

Irun Iruten Elkarte, Luma aldizkaria, Migel taberna, Sunbilla, Kabigorri.

| Jarduera                                   | Antolatzailea   | Eguna      | Tokia                                      | Ordua                          |
|--|---|------------|--|--------------------------------|
| HITZ GURUTZATUEN EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA | Xedera  | Azaroak 23 | Ola Sagardotegia                           | Egun osoa                      |
| IKA MIZKA                                  | Gaztezulo, Gipuzkoako Foru Aldundia, Mondragon Unibertsitatea eta ikasleak, Irungo Udala. | Abenduak 3 | Mondragon Unibertsitateko Irungo kanpusean | 11:00                          |
| MINTZODROMOA                               | Irungo euskaltegiak, Mendibil Merkataritza Gunea, Irungo Udala.                           | Abenduak 3 | Mendibil Merkataritza Gunean               | 10:00 - 12:00 // 17:00 - 19:00 |
| POST-IT ART EUSKARAREN ALDE                | Irungo ikastetxeak, KUNSTHAL Eskola, Irungo Udala   | Abenduak 3 | San Juan plazako pergolan                  | 10:00 - 21:00                  |
| KALEAN BAI. HITZARMEN SINADURA EKITALDIA   | Irungo elkarteak, Siadeco, Irungo Udala.  | Abenduak 3 | Irungo Udaletxeko Areto Nagusian           | 19:30                          |
| IPUIN KONTALARIA                           | Udal liburutegia  | Abenduak 4 | Ikust-Alaia liburutegian                   | 17:30                          |

## IKA MIZKA

*Ika Mizka. Eta hik, nola bizi dund euskara? egitasmoa, gazteak gure hizkuntza erabiltzeko duen garrantziaz sentsibilizatzeko ez ezik, euskaraz bizitzaren aldeko hautua indartzeko helburua dauka.*

*Ika Mizka proiektuak hainbat alorretako aurpegi ezagunak eta gazteak bilduko ditu mahaiaren bueltan, euskaraz eta euskara bizitzeko moduez hitz egin eta eztabaidatzeko. Euskaldunok gure hizkuntzari arnas emateko ahaleginean (edo ez) bizi ditugun gorabeherak mahigaineratu eta jende gehiagorekin konpartitzeko aukera izango da.*

Jarduera honen ostean, Mondragon Unibertsitateko Mugi Hadi ikasle taldeak bazkari informala antolatu du.



# Jostamendi

## “Erosi aurretik, komeni da haurrak nahi eta behar duenaz gogoeta egitea”

Pello Gallardo jostailuekiko grina odolean daramaten merkataria horietako bat da. Bere gurasoen ogibideari lekukoa hartu zion orain 15 urte Donostian, Jostamendi denda irekiz. “Irunen zabaltzeko gogo handia neukan. laz gauzatu zen asmoa”. Gabonetako opariak aukeratzeko tenorea iritsita, hona hemen eskaintza eta profesional honen aholkuak.

Pello Gallardo, Jostamendi jostailuetako nagusia



**- Haurrak dagoeneko hasiak dira opariak gogotan hartzen. Zein dira arrakastatsuenak?**

Nesken artean, Violetta telesailarekin lotutakoak, alegia, panpina, mikroa, motxilak..

Monster High lizentzia, orain urte batzuk saltzen hasi zena, oraindik ere izarretako bat da. Ezbairik gabe, historian gehien saldu den panpina izan da.

Mutilek gustukoak dituztenen artean, berriz, ez dago lider argi bat. Aipagarrienak Hot Wheels zein Scalextric dira. Joera da teknologia eta jostailua uztartzea. Hainbat produktuk beren app-a daukate, hori ez da gauza berria; azken belaunaldiko jostailua da, esate baterako, auto telegidatua tabletaren bitartez.

Ildo horretatik, haurrentzako gadgetak ekoizten hasi dira: egokituak diseinuaren aldetik eta mugatuak edukiaren aldetik, gurasoen lasaitasunerako. Pentsa, BBpad izenekoak ere merkaturatu dituzte, propio ume txikieentzat.

**- Zein da zuen eskaintza?**

Jostailu komertzialez gain, bestelakoak ere baditugu, tartean, zurezkoak: xarma berezia dute eta opari ezberdina egiteko oso aproposak dira. Bestalde, euskarazko produktuen aldeko dema egin dugu: mahai jokoak, liburuak, puzzleak...

Mozorroei dagokienez, urteko garai guztietan eskaintzen ditugu, edonoiz mozerrotzea izugarri gustatzen zaielako haurrei.

**- Zein aholku emango zenieke Olentzerori zein Erregeei opariak aukeratzeko?**

Umeak eskatzen duenaz eta behar duenaz gogoeta txiki bat egitea gomendatuko nieke. Oso kontuan hartzeko da, baita ere, jakina, dagokien adinekoentzat aproposa izatea. Argi dago telebistan ikusten dutena eskatuko dutela; baina opari egokia ez bada, kasu askotan bazter batean gertatuko da.

Jostamendin profesionalak gara eta gustura ematen ditugu aholkuak.

**- Noiz gomendatzen duzu erosketara egitea?**

Umeak argi badauka, ahalik eta azkarren, eskatuenak agor litezkeelako. Oraingo prezioak eta Gabonetakoak berdina izango dira.

Azken egunetarako ez uzteko beste arrazoietako bat da jostailuak askoz ere lasaiago aukera daitezkeela. Gainera, aholkua behar izanez gero, jende gutxiago dagoenean patxadaz hitz egin daiteke.


**- Eta eskatutako oparia denda ez baduzue?**

Espanian Toy Planet sarean 220 denda sartuta gaude. Guk ez badugu, besteren batekin harremanetan jartzen gara, lortu aldera. Talde handi bateko kide izateari esker, esperientziak partekatu eta beraz gure eskaintza aberasten dugu.

**- Eskaintza berezirik al duzue?**

Beti daukagu erreferentzia sorta bat oso prezio merkean. Hori bai, bakoitzetik kopuru jakin bat eskaintzen denez, denak saldutakoan, amaitu da mauka. Orain 60 bat ditugu.

Goian, Pello Gallardo Irungo Jostamendi denda. Eskuinean, aurtengo katalogoa.



Publierreportajea

### ORDUTEGIA

#### ABENDUAN

10:00etatik 20:00etara

#### GAINONTZEKO HILABETEETAN

10:00etatik 13:00etara

16:00etatik 20:00etara

Letxunborro hiribidea, 86. Tel: 943 457510

[www.jostamendi.com](http://www.jostamendi.com)



# “Tokiko Araubide lege berriak udalak adingabeak bagina bezala tratatzen gaitu”

Udal aurrekontua onartzeko garaia iritsita, gobernuak 75 milioi inguruko proiektua proposatuko du, iazkoaren antzera. Alkatea gastuen ardatzez mintzo da, baita superabitarekin egingo denaz ere.

Erakundeen arteko tirabirak eskumen gatazkak direla eta, hiritarren parte-hartzea eta Tokiko Araubide lege berriak udalei ekarriko liekeen demokrazia defizita ere hizpide ditu elkarrizketan.

Jose Antonio Santano, Irungo alkatea



## - Zertan inbertituko da iazko aurrekontu superabita?

Udal aurrekontuaren diru sarrera nagusia Foru Aldundiko Funtsetik datorkigu, eta biltzen den araberakoa da. Diru koltxoi bat edukitzea da gure politika, aurreikuspenak betetzen ez badira gero asko kostazen delako Aldundiari dirua itzultzea. 2012ko soberakina 5,5 milioi ingurukoa izan zen. Oraindik ez dugu dena gastatu. Inbertsio txikiak auzo ezberdinetan egin genitzake

## - Aurten ere superabita aurreikusten da. Irungo elkarteei diru laguntzak murriztu zitzaizkien eta batzuk nahiko itota dabiltza. Diru gehiago jaso lezaketeko?

Aurten ez dugu gehiago murriztu, eta datorren urtean gauzak beren horretan mantenduko ditugu.

Superabitari dagokionez, gure asmoa da abendurako plan berezi bat lantzea, non eskaera eta beharizan garrantzitsuenak jasoko ditugun. Horri jarraiki gastatuko dugu.

## - Eskumenak zeinenak diren argi ez dagoelako, 2013an berriro ere erakundeen arteko tirabirak gertatu dira. Zer egin beharko litzateke horrelakoekin bukatzeko?

Eskumen arazoak beti eman dira, baina orain oso agerikoak dira, diru gutxiago dagoelako; hori dela eta, erakunde bakoitzak bere mugak zorrotz behatzen ditu. Ondorioa da azkenean beti Udalak dirua aurre-

ratu behar duela, eta gero dagokion erakundeari erreklamatu. Bi adibide dira Gizarite-Larrialdiko Laguntzak (41.000 €) eta eskoletako obrak (273.000 €). Kopuru horiek erreklamatu dizkiogu.

Euskadin udal lege bat behar dugu, eskumenak zein erakunderi dagozkion eta horien finantzazioa ere zehaztuko dituen. Legea heldu den urtean onar liteke.

## - Zein izango dira 2014ko aurrekontuaren ardatz nagusiak?

Ardatz estrategikoak dira zerbitzu publikoak mantentzea eta elkartasuna familia zein pertsonekin. Azken hau oso inportantea da, Euskadiko udalek sare soziala osatzen dugulako. Halaber, enpleguan inbertitzen jarraitu nahi dugu, baita zenbait auzotan ere. Azkenik, urte anitzeko inbertsioek aurrera jarraituko dute; hots, Urdanibia plazako zaharberritzeak, Gain Gaineko parkeak, liburutegi berriak eta Porcelanaseko urbanizazioak.

## - Aurrekontuak onartzeko, beste alderdien baten babesa behar du udal gobernuak. Zeinena lortuko duzue?

Negoziaketatik ez dugu inor baztertzen. Zenbat eta alderdi gehiagorekin adostu eta zenbat eta gehiago adostu, orduan eta hobeki. Oposizioaren helburua aurrekontua hobetzea da, ez blokeatzea. Behar bada Irunen hori hobeki ulertu da. Gure jomuga negoziatzea da, eta azkeneko beti iristen gara akordioetara.

## - Bildu kexu da hiritarren parte-hartzea eskasa dela.

Parte-hartze prozesuak abian jartzeko ahaleginak egin ditugu. Azken kritika behin-behineko jardueri buruzko ordenantza dela-eta egin dute. Ez gaude ados kritikarekin, elkarte guztiei bidali zitzaielako, eta batzuek aldaketa zehatzak proposatu dituzte. Bilduk uste du ordenantza bat lantzeko orduan zerotik abiatzea badagoela; baina hori ez da horrela, atzean

bete beharreko legea eta prozedurak dardelako. Guk proposamen bat egiten dugu, eta gero hobetu egiten da elkarten ekarpenekin. Bilduk gauzak beraiek planteatzen dituzten eran egin daitezela nahi du, baina modu asko daude.

Gobernatzen duten erakundeetan eskatzen dutena aplikatzen dute? Ahaldu Nagusiak alkateoi dei egin digu aurrekontua aurkezteko, ez elkarrekin lantzeko.

## Araubide lege berriaren ondorioak

### - Zer ondorio ekarriko lioke Iruni Tokiko Araubide lege berria onartzeak?

Euskadin ezarriko balitz, Udalak zenbait eskumen galduko luke: oinarrizko gizarte sarea, enplegua eta sustapen ekonomikoa, berdintasuna eta udalaren barruko funtzionamenduari dagokionez, eta sistema berrian Ogasun ministerioaren kontrolak lehentasuna izango luke, udalbatzaren borondate politikoaren ginetik ere, kasu askotan. Ezarri nahi den kontrolak adin txikiak bagina bezala tratatzen gaitu eta XIX. mendera atzera eraman nahi gaitu, hau da, bebespeko udaletara.

Atzean dagoen ideia da udalak arazo iturri direla. Errealitatea, ordea, justu kontrakoa dela uste dut: pertsonen arazoak konpontzeko ekarpen handia egin dugu. Udalen zorra ez da Euskadiko zor publikoaren % 0,4ra ere iristen.

Udal txikietan, lege honek demokrazia akabatuko du, hainbat eskumen Aldundiaren esku geratuko direlako. Kontuan izan Euskadin izan ezik beste probintzietan aldundietako ordezkariak ez direla modu zuzenean aukeratzeko.





## Bidasoak argia ikusi nahi du Milos Milosevicen fitxaketarekin

Asobal Ligako itzulera ez da batere erraza izaten ari Fernando Bolearen mutilentzat. Denboraldia hasi zenez geroztik, lesioak eta zorte txarra bidelagun, puntu bakarra eskuratu dute bidasoarrek. Berandu baino lehen, jokalariek buelta eman nahi diote bizi duten egoera txarrari. Horretarako, Milos Milosevic serbiarra fitxatu du Bidasoak, alboko izan dadin.

Liga hasiera gorabeheratsua izan du Bidasoak. Gorputz teknikoak eta jokalariek bazekiten Oho-rezko Mailan aritzea eta kategoria mantentzea ez zela lan erraza izango. Are gehiago, bazekiten arantzasu bateriko ibilbide gazi-gozoa izango zela. Ezin jakin, ordea, lesioek paper erabakigarria jokatu zuten zutela. Adrian Cro-

wley, Roberto Álvarez, Ander Iriarte, Agustin Vidal dira talde bidasoarren erizaindegia bisitatu duten taldekideak. Jokalari horien hutsunea betetzen laguntzeko eta kanpo jaurtiketan aukera gehiago edukitzeko, Bidasoa Kirol Klubak Milos Milosevic jokalaria serbiarra fitxatu du. Asobal Ligan esperientzia duen 1,96

metroko eta 106 kiloko jokalaria kanpo jaurtiketa ekarriko dio Bidasoari. Horretaz gain, Roberto Alvarez eskuin-hegalaren behin-behineko hutsunea betetzen lagunduko du.

Fernando Bolea entrenatzailearen esanetan, aukeraketa ona egin du taldeak Milosevicen fitxaketa berriarekin: "jaurtitzaile ona da, defentsan lagungarri izan daiteke eta eskuratu nahi genuen jokalaria ereduaren baitan sartzen da".

Asobal Ligan esperientzia duen Milosevic pozik dago klubak eta taldekideek egindako harrerarekin; "Bidasoak bezainbeste historia duen talde batean aritzea oso berezia da niretzat. Gainera, munduko liga onenatariko batean jokatzeko eta munduko jokalaria hoberenekin aritzea oso pozgarria zait", dio baikorki.

**Etorkizun handiko jokalaria**

Bidasoa Kirol Kluba familia handi bat bezalakoa da eta taldekideen arteko harreman oso gertukoa izaten da. Milosevicek hau guztia ikusteko aukera izan du, eta taldekide berrientzat hitz onak besterik ez du eskuin-hegalak. "Taldea ona da, gaztea eta etorkizun handikoa. Gainera, uste dut jokalaria gazte oso onak daudela hemen". Garaipen falta orain arteko zorte txarrari atxikitu dio jokalaria serbiarra. "Nire ustez, zorte txarra izan dute bidelagun orain arte, bestela 5 edo 6 puntu gehiago izango zituzten eta gorago egongo ziren sailkapenean".

**Denbora Bidasoaren kontra**  
Denboraldia aurrera doa eta aitzakiak ezin dira gehiago onartu. Fernando Bolearen mutilek lan gogor eta zorrotza egin beharko dute orain arte emandako irudia zeharo aldatu nahi badute. Gainera, kategoria mantenduko ba-



**Milos Milosevic.**

dute partiduak irabazten hasi beharko dute, bidean puntu gehiegi utzi gabe. Bidasoako azken fitxatuak gauzak oso argi ditu: "Lana gogor eginez eta pistan dena emanez gero, garaipenak eta emaitza onak iritsiko dira".

Bidea luzea da eta aukerak oraindik bizirik daude. Munduko zortetik onena izan dezatela.

**Mugaz gaindiko aholkularitza**

**MyL mugan**  
aholkulariak

**Ficoba**  
Iparralde  
hiribidea, 43.  
IRUN  
t 943 537 720  
f 943 116 014  
m 649 014 096  
[www.mylmugan.com](http://www.mylmugan.com)



**T. 678 617 907**  
[mgrotulos@gmail.com](mailto:mgrotulos@gmail.com)  
**Pedro Manuel**  
Aristegui kalea, 12  
IRUN



# Irun Artia Kirol Elkartea, neskak futbolean ikasten eta gozatzzen

2008an sortu zen emakumezkoen futbola sustatzen duen talde apal hau. Harrez geroztik, Bidasoa eskualdeko futbolaren panoraman leku bat egiten saiatu dira klubeko partaideak. Euren helburu nagusia da 12-14 urte bitarteko neska gazte hauek jokalaria eta pertsona bezala heztea, hainbat balio helaraziz.



Arratsaldeko zazpiak dira eta Artiako futbol zelaia futbolari gaztez beterik dago. Gehienak mutilak dira, baina bertan badago 13 neska osaturiko Futbol-8ko talde apal bat. Astearte eta ostegunetan ordu eta erdi entrenatzen duten Irun Artia Kirol Elkarteko jokalaria gazteak dira. Batzuk futboleko lehendik aritutakoak dira; besteak, ordea, hasiberriak. Ilusioa eta ikasteko gogoia dira guztiek komunean duten ezaugarria.

#### Ondo pasatzea helburu

Gaur egun kirolean nagusi den lehiakortasunaren aurrean, Irun Artia Kirol Elkartek balioetan oinarritutako futbola eskaintzen du. "Guretzat garrantzitsua da neska gazte hauek pertsona bezala heztea da. Lehiakorra izatea eta partiduak irabaztea garrantzitsua da, baina ez da lehentasun bat gure klubarentzat", dio baikorki Santi Arraras Irun Artia Kirol Elkarteko presidentea. Neskei diziplinatuak, arduratsuak eta taldekideekiko solidarioak izaten irakasten saiatzen dira Gorka Maillo eta Sonia Garcia Maillo entrenatzaileak. Azken honen hitzetan, "edozein kirolarientzat emaitzak inportanteak dira, baina, nire ustez, futboleko jokatzeko disfrutzea da benetan garrantzitsua". Soniak oso ondo ezagutzen du emakumezkoen futbola, entrenatzailea baino lehen jokalaria izandakoa da eta. "Urte askotan ari izan naiz futboleko jokatzeko; hori dela eta, berebizikoa iruditzen zait neskek motibatzea eta behar duten edozertan laguntzea" dio zuhurki entrenatzaileak. Hala ere, diziplina ez da ahaztu behar. Irun Artia Kirol Elkarteko presidentea eta entrenatzaileak bat egiten dute diziplinak kirol honetan duen garrantziaz hitz egitean. "Nahiko zorrotzak gara neskekin, horrela entrenatzailea, taldekideak eta aurkariak errespetatzen ikasten dutelako".

**Goian, ezkerretik eskuinera, Sonia Garcia Maillo eta Gorka Maillo entrenatzaileak, Santi Arraras presidentea eta jokalaria.**

**Behean, Artiako neskek, entrenatzen**



#### Emakumezkoen futbola: lehena eta oraina

Sonia Garcia entrenatzailea jokalaria zenetik, gauzak asko eta onerako aldatu dira. "Nire garaian kategoria bakarra zegoen. Bertan, 14 urteko neska batek 30 urteko beste batekin jokatzeko zuten. Imajina dezakezunez, desoreka nagusi zen garai haietan. Gaur egun, ordea, laguntza eta babes gehiago du emakumezkoen futbolariek eta hori oso pozgarria da; hala ere, aurrera egiten jarraitu behar dugu". Bestalde, 12 eta 14 urte bitarteko neska talde hau erabat motibatuta dago denboraldi berri honi aurre egiteko. Izan ere, elkartasuna nagusi da haien ar-

tean. "Oso talde jatorra da eta denek elkarri etengabe laguntzen diote. Batek jokaldi batean akatsen bat egiten duenean gainontzeko taldekideek animoak ematen dizkiote, eta hori garrantzitsua da gaizki egin duenarentzat, taldekideen babesak hobeto sentiarazten duelako" diote entrenatzaileak eta presidentea, hunkiturik.

Futbol-8ko talde gazte hau eredu bat da gainerako taldeentzat, lehiakortasunaz eta garaipenez harago bizitza egon dagoen erakusgarri baitira.



## Belaskoenea LH

## Bertsolaritza



2012-2013an Belaskoenea ikastetxeko 2. zikloko ikasleek "ZU ERE BERTSOLARI" programan parte hartu genuen kurtsoan zehar.

Programa horrek bertsolaritza Euskal Herriko kulturaren barruan ezagutzeko aukera ematen digu: bertsoak sortu, bertsoak kantatu, bertsolari ospetsuak ezagutu...

Gure irakasle-bertsolaria Alaiia Martin izan zen, eta berekin bertsoak sortu eta kantatu genituen.

Ekintza desberdinen artean, garrantzitsuena bertsoak ikastetxean eta ikastetxetik kanpo kantatzea izan zen. Maiatzaren 28an, Amaia Kultur Zentroan, emanaldia izan

genuen beste zenbait ikastetxeekin batera, guraso, lagun eta hurbildu ziren guztientzat.

Aipatu beharra dago gure eskolako Abesbatzarekin emanaldiak eman genituela Dunboa eta Elatzeta ikastetxetan ere.

Hau guzti hau egin ondoren, Alaiak ustekabe atsegina ekarri zigun geletara. Jon Maia bertsolari ospetsuak bisita egin zigun. Bertan, elkarrizketa egin genion, bertso batzuk bota zizkigun eta azkenik argazkiak atera, eta nola ez!! autografo batzuk sinatu ere.

[www.jostamendi.com](http://www.jostamendi.com)



# Josta mendi

- Jostailuak
- Mozorroak
- Motxilak

**JOSTAILU GUZTIAK:  
MODAKOAK ETA KLASIKOAK  
SALNEURRI MERKEENAK**

Prim, 59. Tel: 943 455300 Donostia  
Letxunborro, 86. Tel: 943 457510 Irun

- Puerikultura ttikia
- Paseatzeko sillitak
- Sehaskak
- Haur kotxeak

**GIPUZKOAKO**

**ERAKUSKETARIK HANDIENA**

Easo, 51. Tel: 943 470244 Donostia  
Artaleku, 3 Tel: 943 638223 Irun



Zure jaioberria  
zaintzen dugu



# Manex

"Bat, bi hiru...  
Probatzen, pro-  
batzen... (mu-  
sika)... Airean..."  
"Anbrosioren  
Korbatak salgai!!  
Korbatak edono-  
rentzat...  
Loredunak, ma-  
rradunak, ilunak,  
kolore bizikoak...  
Kaixo, Anbrosio  
naiz, korbata  
saltzailea. Nire  
lana kalez kale



- Ah, zu al zara  
korbata saltzai-  
lea?  
- Bai, ni neu naiz.  
Biltegian dudak  
korbatarik ede-  
rrena ekarri  
dizut.  
- Espero dut hala  
izatea, oparia  
egin behar dio-  
dan pertsona oso  
berezia baita ni-  
retzat. Hartzazu  
dirua eta mila

eskertuak saltzen ibiltzea da. Garai batean,  
korbatak mordoka saltzen nituen, baina gaur  
egun oso zaila da bat bera ere saltzea; izan  
ere, bizitza asko aldatu da eta orain traje eta  
korbata gutxi erabiltzen da.

Seguruenik zeuen buruari "zergatik segituko  
du gizon honek korbatak saltzen, ez badiote  
bat bera ere erosten?" galdetuko diozue.  
Bada, kontua da nire aitona eta aitaren  
lanbideari jarraitu diodala eta, garrantzi-  
tsuena, duela urte batzuk korbatek bizia sal-  
batu zidatela, eta ondorioz zin egin nuen  
korbatak saltzeari ez niola sekula utziko.

(Musika) Negu gorriko egun hotz eta latza  
zen. Elurra mara-mara ari zuen. Goizean  
goiz, zola gastatua zuten bota zaharrak  
jantzi, emazteari musua eman eta lanera  
irten nintzen. Egun hartakoa berezia izan  
zen. Gabonak ziren eta enkargu bat nuen  
esku tartean. Mendian gora abiatu nintzen,  
astebete lehenenago gizon batek eskatu  
zidan korbata eramatera. Gizona, dotorea  
eta elegantea bera, Aborez mendian zuen et-  
xetzar batean bizi zen. Atea jo nuen.

- Kax, kax.

- Egun on, gazte. Zertan lagun zaitzaketa?  
galdetu zidan gizonak.

- Ba... Orain astebete egin zenidan enkargua  
ekartzera nator- erantzun nion.

esker guztiarengatik. Eguberri on izan deza-  
zula.

- Mila esker, baita zuk ere. Aio.

Poz-pozik nengoen. Aspaldi honetan korba-  
tarik saldu gabe egon naiz eta orain, guztien  
arte nuen garestiena saldu dut.

(Musika) Elurra gogoz botatzen jarraitzen  
zuen, baina nik ez nuen hotzik sumatzen.  
Maldan beheara, konturatu gabe, mendia  
ziztu bizian jaisten hasi nintzen.

Bat-batean bota zaharrek irrist egin, erori eta  
biraka, amildegi baterantz nindoala kontura-  
tzen ari nintzen. Korbaten maleta, kolpe haie-  
tako batean, ireki eta korbata guztiak airean  
atera, bata bestearen ondoan jarri ziren eta  
kolorez beteriko alfonbra eder eta hegalaria  
bat nire azpian zabaldu eta herriko plaza-  
raino eramanez ninduen. Gabonetan gauza  
magikoak gertatzen omen dira".

Gustatu al zaizue gaur nire ipuina? Badaki-  
zue, ni ez naiz Anbrosio eta ez dut korbata  
hegalaririk. Hori guztia nik asmatua da.  
Hemen existitzen den bakarra ni naiz,  
Manex, zazpi urteko mutikoa. Euskal Irratiko  
arratsaldeetan umeei ipuinak eta istorioak  
kontatzen dizkiena. Eta bihar gehiago.

**Maddalen Zufiarre**  
2. maila. Txingudi BHI.  
2012-13 ikasturtea.

## COMMUNITY MANAGER BAT BEHAR DUT, ALA NIK NEUK EGINGO?



Enpresa-proiektu bat, denda bat, nego-  
zio bat, jatetxe bat edo halako zerbait  
daukagun guztiok gauza bera galdetu  
diogu geure buruari: benetan behar al  
dut community manager bat? Ezin dut nik  
neuk egin? Gure presentzia on line ku-  
deatzeko tenorean, proiektu txikiatarako  
freelance bat kontratatzea, edo langile  
bat enplegatzea enpresa handiaren ka-  
suan, garesti samar gerta liteke batzuetan.

Gaur egungo egoera ekono-  
mikoan "make it your self" da jaun eta jabe, kostuak murrizte aldera;  
baina... bideragarria al da esaten ari garen kasuan?

### Erantzun berehalakoa: BAI

Erantzun patxadazkoa, gogoeta egin ondorengo: Bai, baina... formatzeko  
eta prestatzeko ahalegin handia eskatzen du.

Zu zeu arduratzen bazara zeure proiektuaren marketin eta komunikazioaz,  
baduzu abantaila, eta ez nolana horko: ez du inork zuk baino hobeto zure  
abenturaren 'background' delakoa ezagutzen. Community Manager baten  
lanaren alderdirik zailenetakoa enpresa baten egoera ezagutzea da; alegia,  
ahuldadeak, mehatxuak, indarrak eta aukerak aztertzea, bezeroak edo  
markaren estiloa ezagutzeaz aparte. Horieta guztietan, zeu zara ikerlari-  
rik onena, zentzuz eta gutxieneko teknika egokiek eginen gero. Produk-  
tua ere ezagutzen duzu, noraino iritsi nahi duzun badakizu eta zuk baino  
gogo handiagoa ez du inork erakutsiko. Dena den, esan ere esan beharra  
dago batzuetan kanpotik hobeto ikusten direla gauzak orokortasunean,  
barrutik baino.

Hona hemen abantailak. Kontuan hartu, alabaina, zure markaren komu-  
nikazioa kudeatzea Facebooken profila irekitzea eta argazki alai batzuk  
paratzea baino gehixeago dela. Formazio sendoa beharko duzu marketin  
eta estrategian, zure helburuetarako sare sozial eta eduki egokienak eza-  
gutuz, erantzunak neurtzen eta emaitzak interpretatzen jakin, egoera des-  
erosoak kudeatu, eta zure jarraitzaileentzako eduki erakargarriak  
etengabe sortzeko gaitasuna ere beharko duzu.

Hori guztia ikasi egiten da, hamaika ikastaro aurkituko duzu, arrakasta es-  
kuratzen irakatsi gabe ere pista batzuk emango dizkizutenak eta hanka-  
sartze batzuk ekiditen erakutsiko dizutenak. Baina, hein handi batean,  
kontua da ekiteko jarrera edukitzea, ikasteko, ikertzeko eta esperimenta-  
tzeko grinari eustea, eta, jakina, hartan sartu ahal izateko orduak ere iza-  
tea.

**Pablo Moratinos**

Marketing online-aholkularia  
3yMedia Comunicación Digital



zure enpresari  
internetetik zabalitzen  
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net





Jokoaren bi irudi.



## Irungo Etorki Gamesek sortu duen bideo-jokoa, merkaturan abendurako

Ikasketak amaituta, lan munduan murgiltzeko tenorea iritsi zitzairen. Gustuko duten jardueran aritzeko enplegu aukerak, ordea, oso murrizak ziren. Sormena eta ausardia uztartuz enpresa bat sortzera deliberatu ziren. Pablo eta Ion Ocasar anaiek eta Alex Camareroek Etorki Games bideo-jokoak garatzeko enpresa abian jarri zuten. Alabaina, bidea ez da samurra izan. Datorren hilean Mad Dan izenekoa merkaturatuko dute.

Pablok eta Ionok, programazio ikasketak burutu ondoren, bideo-jokoei buruzko masterra egin zuten. Alex arte ederretan lizentziatua da eta animazioko master batekin osatu zituen ikasketak. Gure inguruan bideo-jokoak garatzeko ia-ia enpresarik ez dagoelako argi ikusi zuten hasieratik gustuko duten lanean jardungo bazuten beraiek sortutakoa beharko zuela. Aurrena, nor bere etxean produktua garatzen hasi zen, "hau ez baita zapatat saltzea bezala: emaitza borobiltzeko ordu pila sartu behar dira", diote gazte ekintzaileek. Bidasoa Biziriken babesia izan zuten aholkularitzari dagokionez, baita bulego alokatzeko ere.

### Mad Dan bideo jokoa

Bideo-jokoaren protagonista eroetxe batean bizi da, gaixorik dagoelakoan. Jokalariaren zeregina handik ateratzean datza. "Marrazki bizidun tankerako pertsonaia dibertigarriak txertatu ditugu eta, joko mota hauetakoa gehienak ez bezala, 3 dimentsiokoa da".

Hiru hilabetetan Mad Dan bideo-jokoaren lehenengo bertsioa 45.000 aldiz behera ekarri zen. Emaitza ez zen txarra

izan; baina, gazte ekintzaile hauen esanetan, "arazoa izan zen sektore honetako enpresa alemaniar garrantzitsu batekin kontratua sinatu genuela eta azken unean bertan behera geratu zen". Ez zuten etsi, ez eta hurrik ere! "Jokoa merkaturatik atera genuen. Orain hobetzen ari gara eta abendurako eskuragarri edukitzea espero dugu". Diseinu erakargarriagoa garatzeaz gain, jokoaren mekanika ere aldatu dute. *Tower defense* moduan planteatuta dago; hots, aurkariak eszenatokitik ateratzen ez uztean datza. Etorki Games-eko kideak ziur dira "publikatzea dela bidea, sektoreko enpresa handiek lana ikusi eta hortik negozio aukerak zabaltzeko".

### Errentagarritasuna

Diru sarrerak eskuratzeko formulak aztertu ondoren *freemium* delakoa hautatu dute. Behera ekartzea doakoa da; baina behin jokatzeko hasiz gero, partida hobetzen duten aukerak erosteko parada du erabiltzaileak. Pablo, Ion eta Alex sinestuta daude egindako hobekuntzak medio inbertsioak uzta ekarriko duela.



Ion Ocasar, Alex Camarero eta Pablo Ocasar.

### Enpresa sortzeko pizgarririk ez

Etorki Gameseko kideak kexu dira gaur egun enpresa bat sortzeko pizgarririk ez dagoelako. Hilabetetan etxean lan egin ondoren, "gizarte segurantzian ekintzaileei eskaintzen zaizkien hobia-riak aztertuta, enpresa sortzeko aukera ikusi genuen, baina gure itxaropenak zapuztuta geratu ziren sozietate mugatua eratuz gero ez zigutela emango jakin genuenean". Gauzak horrela, 150 € ordaindu beharrean gaur egun 900eko kuota dute hilabetero. "Arazoa zen enpresa eratzea ezinbesteko baldintza zela Bidasoa Biziriken alokairu merkeko lokal bat lortzeko. "Ez da inondik inora logikoa



Bideojokoaren ikonoa

legearen barruan lan egin nahi duten ekintzaileentzat laguntzarik ez egotea".





## Special Day, gazte sormenaren orena

*Gazteartean Special Day* jardunaldiak zenbait diziplina artistiko bilduko ditu, gazteen sorkuntza abiapuntu hartuta. Azaroaren 16an burutuko da, Ficoban. Sarrera, doan.

Special Dayk Irungo Udaleko Gazteria arloak abian jarritako azkeneko ekimenak bilduko ditu, eta Gazteartean programako kapitulu berriak aurreratuko ditu.

Goiz partean **GKo Galleryk** eta **Kunsthale Diseinu-eskolak** hainbat arte-instalazio muntatuko dituzte; horietan, asmoa da jendeak parte hartzea, emaitza interesgarriagoak sortzeko. **Kunsthalek** relax gune bat zuzenean muntatzea proposatzen du. Gune hori egun osoan erabili ahal izango dute beren proiektuak partekatu edo aurkeztu egin nahi dituzten gazte sortzaileek. Gainera, hitzaldi bat proiektatuko da eguneroko objektuak berrerabiltzeari

buruz. **Gko Galleryk**, bestalde, esku-hartze bat planteatu du, honako xedez honekin, planteatu ere: sorkuntzak hiri-ingurunean planteamendu modu asko dauzkala eta, gauza zehatz batez ideia edo gogoeta bat adierazteko baliabide pila erabil daitezkeela ulertaraztea.

Beste proposamen bat Irungo **Lauburu Estudioaren** eta **Javier San Martin Shafen** bidez iritsi da. **Iñaki Oyarzabal** Lauburuko arduradunak ARTEKALEA hiri-arte teko tailerra zuzenduko du. Egun lanean diharduten bertako artista-talde batek obrak egingo ditu in situ. Horma-pintura, graffiti, paper margotuak, pegatinak eta eskultura izango dira prozesuan dagoen obraren erakusketan garatu eta aurkeztuko dituzten arte-baliabideak. Arratsaldean, aurkeztutako teknika guztietako hastapen-ikastaro bat emango da. Bertan, nahi duenak bere pegatinak, txantiloak, tag-ak edo eskultura iragankorrak egin ahal izango ditu.

Bestalde, **Javier San Martin Shaf** Irungo artistaren ikusentzunezkoetako bat proiektatuko da, Donostiako Surfifestibalerako egindakoa. Halaber, Robert Julius Torio pertsonaiari buruz editatutakoa ikusteko parada izango da. Beste gune batean, han dauden enretratuak egingo ditu, bere teknika erabiliz: "shafografia".

Modaren adarrean, **Itsaso Petrikorena** GAZTEARTEAN WEARABLES moda-tailerraren arduraduna, berak *Hapening with fashion* esaten dion zerarekin harritzeko prest dago.

Egun osoan, zenbait aurkezpen egingo dira: gazte sortzaileek eskura izango dute gune bat, beren proiektuak aurkezteko eta besteekin topatzeko. Gainera, Gazteartean hurrengo hitzorduak aurkeztuko dira: **Komikiaren eta Arte Elkartuen Hamabostaldia**, azaroaren 18tik 30era bitartean burutuko dena; **Oiasso Ludicas** ere, **Tempusek** antolatuta, Special Day zabal horretan egingo da.

Arratsaldean Hip-Hopeko Jam Session bat egingo da **Sergio Ruiz** DJarekin. Break erakustaldia izango da, Irun Breake sail gazteenarekin, abenduaren 29an zortzigarren edizioa izango duen txapelketaren aperitibo gisa. Jardunaldia amaitzeko, **MUSIKIRUN2013** maketa-lehiaketako talde finalistak izango dira; besteak beste, Korkut, Kaser-narat eta Istrian taldeek finalera iristeko jo zituzten kantak eskainiko dituzte.

**Bideo Gaztearen Lehiaketak** bere lekua izango du Special Dayn. Goizean, film labur finalistak proiektatuko dira. Arratsaldean, lehiaketa ebatzi eta sari-banaketa egingo da.





## Lehiaketak

- **GAZTEARTEAN-KUNSTHAL DISEINU LEHIAKETA.**

**Baldintzak:** 14tik 22ra urte bi-



tateko gazteak.

Lanak PDF formatuan eta gehienez ere 2 MBko dokumentuan arukezko dira. Teknika eta diseinu-diziplina libreak dira.

**Epea:** Azaroak 30.

- **EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN KARTEL LEHIAKETA.**

**Deialdigilea:** Eusko Jaurlaritza.

**Baldintzak:**

- 1984tik 1996ra urte bitartekoan jaioak, biak barne.



- Euskadin erroldatuta egotea.

**Saria:** Garaileak joan-etorriko hegazkin bidaia bat irabaziko du Hego Amerikako herrialde batera. Irabazleak bidaia aukeratzeko modua izango du 2014an Lankidetzeta programa bat egingo den Hego Amerikako herrien artean. Ez du lankidetzeta programan parte hartuko.

**Epea:** Abenduak 8.

**Informazioa:**

[gazteaukera@gmail.com](mailto:gazteaukera@gmail.com)



## Lana

- **66 TEKNIKARI PLAZA ESPAINIAKO BANKUAN.**

**Deialdigilea:** Espainiako Bankua

**Baldintzak:**



- Adinez nagusi izatea.

- Espainiar naziotasuna izatea, edo Europar Batasuneko herrialde batekoa.

-Titulazioak: Unibertsitate lizentziatura edo maila handiagoko titulazioa.

- Idatzizko eta ahoko ingeles maila altua.

**Epea:** Abenduak 16

**Tel:** 91 338 6834

[rho.seleccion@bde.es](mailto:rho.seleccion@bde.es)

### Gabonak 2013

Irungo Udalak Olentzero eta Gabon Kantuen jaialdia eta Olentzero zein Jaiotzen erakusketa antolatu ditu.

**Izena emateko epea:**

Abenduak 13.

## Enpleguaren astea

- Pertsona bakoitzak gehienez ere hiru eskaintza eskatu ahal ditu.

- Irunen eta Hondarribian erroldatuta dauden pertsonen zuzendua.

-Informazio guztia eta eskarien erregistroa [www.elespazio.com](http://www.elespazio.com) webaren bidez egingo dira.

-Izena emateko, CVa formatu digitalean erantsi behar da.

-Webaren bidezko eskaera egin ondoren, datuak kontrastatu eta, behar izanez gero, El Espazio zurekin harremanetan jarriko da zure profilaren doitzeko egokia egiteko.

-Amaierako hautaketa enpresa parte-hartzaileen arabera izango da beti.



- Enpresak eskatu ahal izango du profileen sartutako datuak egiaztatzeko.

- Eskaintzeki aldaketak eduki ditzakete prozesuan zehar: Konproba ezazu beti informazioa [www.elespazio.com](http://www.elespazio.com) webaren bidez.

- Elkarriketak azaroaren 21ean egingo dira, FICO-BAn. Betekizunekin egokien doitzen diren pertsonen emango zaie elkarriketarako hitzordua.

## Gazte lokalak

Udalak gazteen lokalen kudeaketarako protokolo bat onartu du. Horrelako eremuan eta bizilagunen erkidegoen arteko bizikidetzeta baketsua bermatzea da dokumentuaren helburua.

Aisialdiko lokaletako bizikidetzarako eta kudeaketarako protokoloa kontsultatu nahi baduzu, jo ezazu [irun.org](http://irun.org) web gunera.



## Hizkuntza ikastaroak atzerrian

Atzerrian hizkuntza ikastaroak egiteko plazak 2014ko udan. Alemanian, Frantzia, Erresuma Batuan eta Irlandan egonaldiak eta ikastaroak egiteko eskaintza. EAEko funts publikoak sostengatzen diren ikastetxeetan eskaintzen dira plazak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. maila eta Batxilergoko 1. eta 2. maila ikasten duten ikasleentzat. **Eskabideak aurkezteko epea:** 2013ko abenduaren 2ra.



Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero

## Irunero non eskura dezaket?

### San Juan

Gaztelumendi  
Manolo  
Sargia  
Udal Liburutegia  
Gazte Informazio  
Bulegoa  
Arano  
Corner  
Fotokop

### Nafarroa hiribidea

Erka material  
elektrikoa  
Kutxa  
Ogi Berri  
Hawai  
Erauskin

### Santiago

Aguirre  
Txingudiko  
Zerbitzuak

Toma Pan y Moja  
Haizea  
Swing

### Urdanibia plaza

Migel  
Ospitale zaharra  
Euskaltegia  
Euskadiko Kutxa  
Eskina  
Lasa harategia

### Dunboa/Palmera -

**Montero/Arbes**  
Osasun Zentroa  
Tahona  
Zura  
Anetxe  
La Agricola  
Amalen paper-denda  
Biribil

### Behobia/Azken

### Portu

Azken Portu  
kiroldegia  
Ogi Berri  
Hawai  
Hizkuntza Eskola  
Eguneko zentroa  
K u t t u n a  
haurtzaindegia

### Kolon ibilbidea eta inguruak

Cadillon Hertz Klinika  
Brasil gozotegia  
Ogi Berri (Kolon)  
Ciaboga  
BBVA  
Kutxa  
Anbulatorioa  
Artaleku kiroldegia  
Virginia kafetegia  
Eduerne kafetegia

Erauskin  
(Luis Mariano)  
Sirimiri  
Turismo Bulegoa  
SAC-HAZ  
Real Union taberna  
Gaudí  
Mendibil ardotea  
Merkairun  
Narrea kafetegia  
Jaiberri  
Luis Mariano  
pentsiodunen etxea  
Hawaii  
Ketan  
Santander bankua  
Solbes  
Oskarbi  
Kutxa  
Euskadiko Kutxa  
Peinart ileapaindegia

### Pio XII

La Tahona  
Ñ kafetegia  
Ogi Berri  
Alvaro paper-denda  
Erauskin

### San Migel

Tabisa  
Caser egoitza  
Jaizibea okindegia  
Senosiain harategia  
Dumboa fruta-denda  
Uranzu azoka  
Gizarte  
Segurantzako  
Institutua  
LANBIDE  
BBVA  
Santander bankua  
Dani urdaitegia  
Erauskin

Sabadell  
Euskadiko Kutxa  
Kutxa  
Sotero taberna  
Baztan taberna  
Ogi Berri-Ogitxu  
Aguirre  
Adriana Barrios  
ileapaindegia

### Antzaran

Picking Pack  
Rosi kioskoa  
Amantegui Hertz  
Klinika

### Anaka

El Espazio  
Kutxa  
Mariño  
Ogi Berri  
Anaka okindegia  
Washington taberna

Jaizkibel  
janari-denda  
Pablo harategia  
Anaka Berri erretegia  
Covirán Anaka

### Puiana

Tahona  
Puiana taberna  
Ospitalea  
Endanea

### Larreandi

Larrarte harategia  
Toma Pan y Moja  
Pedro arraindegia

### Elizatxo

Martindozenea  
gaztelekua

**Ikasturtean zehar,  
Irungo ikastetxe guztietan**



**Azaroaren 16an eta 23an**

**Genealogia tailerra**

**Meakan**

10:00etatik 12:00etara, genealogia tailerra, Meakako bizi-lagunen elkartean. Arbasoen inguruko informazioa biltzeko oinarritzko ezagupenak.

**Azaroaren 16an**

**Kontzertua**

**Junkal elizan**

20:00etan, Fernando Etxepare *In memoriam*. Donostiako Orfeoiaren eta Ametsa abesbatzaren kontzertua.

**Azaroaren 16an**

**Kontzertua**

**Tunk aretoan**



20:00etan, Irun Zuzenean programaren barruan, METAL NORTE FESTIVAL. Parte hartuko duten taldeak: Airless, Azrael, Vhaldemar, Tamerlayn, Black Devil eta Donn. Sarrerak: aldez aurretik, 15 €, eta leihatillean, 18.

**Azaroaren 16tik 23ra**

**Erakusketa**

**Ametsa Elkartean**

Fernando Etxepare *In memoriam* erakusketa. Istillaga, 5.



**Azaroaren 1etik 30era**

**Erakusketa**

**Kabigorri**

Onintza Etxebeste Lirasen pintura eta collage erakusketa: *Presencias*.

**Azaroaren 17an**

**Kontzertua**

**Amaia KZn**

12:00etan Irun Hiria Musika Bandaren kontzertua.

**Azaroaren 15etik abenduaren 17ra**

**Erakusketa**

**Amaia KZn**

Irungo Argazki Elkarteak antolatutako Irun Hiria Argazki Lehiaketan parte hartu duen

lanen erakusketa.

**Azaroaren 17an**

**Mendi txangoa**



Mendi txangoa Irungo Mendizaleen eskutik: Otsondo/Iru-belakaskoa/Gorramendi/Otsondoko gaina + babarrunak Arizkunen. 943 631484.

[irungomendizaleak.com](http://irungomendizaleak.com)

**Azaroaren 18an**

**Liburu Foruma**

**Ikust-Alaia liburutegian**

19:00etan, Federica Sagor Masen *La escandalosa Señorita Pilgrim*.



**Azaroaren 19an**

**Idazle ikastaroa**

**Ikust-Alaia liburutegian**

17:30ean, idazle ikastaroa, Edward Rosseten eskutik. Izenburua: *¿Qué hacemos con las ideas? Sinopsis*.

**Azaroaren 19an**

**Opera zinean**

**Amaia KZn**

19:00etan, *La viuda alegre* operaren proiektzioa. Sarrera: Doan.

**Azaroaren 20an**

**Hitzaldia**

**Argoia Elkartean**

17:00etan, Yolanda Cervero psikologoaren hitzaldia: *¿Qué está pasando con las parejas jóvenes?*

**Azaroaren 20an**

**Ipuin kontalaria**

**Ikust-Alaia**

17:30ean, haurrentzako ipuin kontaketa euskaraz.

**Azaroaren 20an**

**Dokumentala**

**Amaia KZn**

19:30ean, Jorge Oteiza, *tiembla* izenburuko dokumentala proiektatuko da, Felix Marañak eta Nuria Ruiz Cabestanyk aurkeztuta.

**Azaroaren 21ean**

**Proiektzioa**

**Amaia KZn**

19:30ean, Zure Abenturaren bila: *El mundo en bicicleta* ikus-entzunezkoa, Alice Goffartek eta Andoni Rodelgok aurkeztuta.



**Azaroaren 26tik 30era**

**Zinemaldi arkeologikoa**

**Amaia KZn**

Bidasoako Nazioarteko XIII Zinemaldi Arkeologikoa, Oiasso Museoak antolatuta.

**Oteizaren lorratza Irunen**

**Zer:** Euskal eskultoreak Irunen utzitako aztarnaren atzetik doan diziplinarteko ibilaldia.

**Noiz:** Azaroaren 30ean

**Ordua:** 12:00etan

**Non:** Santiago zubia / Iparralde hirib. 35 / Justizia jauregia.

**Antolatzailea:** Ezmugak, *Oteiza, mugaldeko animalia* proiektuaren barruan.

Espazio publikoan artea, musika eta dantza garaikideak uztartzen dituen ibilaldia. Obra batetik bestera egingo diren lekualdaketak Jorge Oteizaren testuen irakurketei esker aktibatuko dira.



**Estankonaren kontzertua Kabigorri**

**Noiz:** Azaroaren 23an

**Non:** Kabigorri (Peña kalea. Irun)

**Ordua:** 23:00etan

**Sarrera:** Doan

«Fruitua» (Baga Biga)

Borja Estankonaren bakarkako bigarrenen, rockean mugitzen da, non blues ukitu batzuk eta bere post-rockaren akorde errepikakor batzuk sartzen diren.




**Industria Sortzaileen Azoka**

**Zer:** Euskal Herriko Industria Sortzaileen Azoka

**Noiz:** Azaroaren 22an, 10:00etan

**Non:** Irun Factoryn.



Bertan, enpresek eta elkarteek beren proposamenak erakutsiko dituzte.

**Opereta**  
**LA VIUDA ALEGRE**  
Franz Lehár

**AZAROAK 23 eta 24**  
**ORDUA 19:00**  
**AMAIA K.Z. IRUN**

SARRERA SALMENTA  
IRUNGO TURISMO BULEGOAN. Kolon Ibilb.  
SERBOKITXA

944 00 12 00 [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)  
KUTXA INTERNET  
[www.berca-luismariano.org](http://www.berca-luismariano.org) [www.irun.org](http://www.irun.org)







# La agrícola

Alzukaiatz kalea,1. IRUN. 943 244 118

## Zatoz gosaltzera!



Nahi dituzun kafe eta galleta guztiak  
**1,5 €**

